



# **GOBERNU BILERA**

**Prentsa-Txostena**  
**Erabaki nagusiak**

## **CONSEJO DE GOBIERNO**

**Dossier de Prensa**  
**Acuerdos destacados**

**Vitoria-Gasteiz, 2021ko ekainak 15a**

**Vitoria-Gasteiz, 15 de junio de 2021**

## Lehendakaritza

### EUROPAREN ETORKIZUNARI BURUZKO JARDUNALDIA 2021-2022

#### BOST ERRONKA: EUROPA BAT

Eusko Jaurlaritzak eta EuroBasque Europako Mugimenduak herritarrei eta euskal gizarte zibilari irekitako hausnarketa-prozesu bat jarri dute abian, eta prozesu horren emaitza Europaren etorkizunari buruzko Konferentziari egindako ekarpenaren oinarria izango da

Eusko Jaurlaritza, Europaren Etorkizunari buruzko Biltzarrak iraungo duen hamabi hilabete hauetan zehar, berriz ere eragile aktiboa izango da Europaren integrazio-prozesuan. Europaren etorkizunari buruzko Biltzarraren helburua da Europako herritarrei eta gizarte zibilari dei egitea, Europaren integrazio-prozesuaren historian lehen aldiz, eztabaidetan eta elkarrizketetan parte har dezaten, beren iritzia eta ideiak adierazteko, Europaren etorkizuna definitze aldera.

Lehendakariak, Europar Batasunean ireki den etapa berri honetan, eta botere legegileak dituzten Europako 14 eskualdetako presidenteez, RLEG ekimenean bilduta, idazki bat bidali zieten joan den maiatzaren 3an Europako Batzordeko, Europako Parlamentuko, Europako Kontseiluko eta EBko Kontseiluko presidenteei, Europaren Etorkizunari buruzko Biltzarra egingo zela eta. Bertan, eskualdeen botere legegileek protagonismo handiagoa eta parte-hartze zuzena izatea eskatzen da, bai eta eskualdeen legegintza-prozesuan protagonismo handiagoa izatea ere.

#### **Eurobasque**

Horrez gain, Eusko Jaurlaritzak, Europako Etorkizunari buruzko Biltzarrarekin hasi den Europar Batasunaren erreforma-prozesu berriaren aurrean, Europako Mugimenduaren Euskal Kontseiluarekin batera, hausnarketa-prozesu bat abiarazi du, lau mintegiz osatua, herritarrei eta euskal gizarte zibilari irekia, Europar Batasunean etorkizun komuna definitzen laguntzeko.

Mintegi horien bitartez, Europar Batasunaren etorkizunerako funtsezkoak diren bost erronkari helduko zaie: Europarako Berreskuratze Plana, munduko geopolitika, Europako gobernantza, Europa soziala eta kultura- eta hizkuntza-aniztasuna. Bost erronka: Europa bat.

Euskal gizartearen hausnarketa-prozesu horren emaitza izango da Europaren etorkizunari buruzko Biltzarrari egingo zaion ekarpenaren oinarria, Europako erakundeek horretarako sortutako plataforma digitalaren bitartez.

Lehenengo jardunaldia ekainaren 22an izango da, Bilboko Euskalduna Jauregian, eta bere eztabaida-gaia "Europako Berreskuratze Plana: krisiari erantzun federala ematea" izango da. Bertan, Europar Batasunak 800.000 milioi euro baino gehiagorekin hornitutako Berreskuratze Planaren xehetasunak eta Euskadirentzat dituen finantzaketa-ildo nagusiak eta aukerak aztertuko dira. Jardunaldiak ekonomiaren, trantsizio berdearen eta eraldaketa digitalaren arloko lehen mailako adituak izango ditu, bai eta ordezkari instituzionalak, akademikoak eta gizarte zibileko hainbat erakunde eta parte hartzeko interesa duten herritarrak ere.

Hurrengo hilabeteetan, 2022ko udaberrira arte, beste hiru jardunaldi egingo dira, gai hauei buruz:

- Europa geopolitiko eta EBren zeregina munduan,
- Europako gobernantza eta Euskadik EBn duen eginkizuna,
- Europa anitza eta solidarioa.

Jardunaldiak hiru lurralde historikoetan egingo dira, eta aurrez aurre parte hartzeko aukera emango dute, baina baita ekitaldiak telematikoki jarraitzeko eta sare sozialen bidez ekarpenak egiteko aukera ere.

Eusko Jaurlaritzak eta EuroBasquek parte hartzera animatzen dute, eta elkarrekin lan egiteko konpromisoa hartzen dute, euskal herritarren ahotsa Europako Biltzarrera irits dadin, bere aberastasun eta aniztasun guztiarekin, eta kontuan har dadin Europar Batasunaren bilakaera berrian. Prozesu horren emaitza hainbat dokumentu eta argitalpenetan bistaratuko da, jasotako ekarpenak oinarri hartuta.

## Gobernantza Publiko eta Autogobernua

### **GOBERNU KONTSEILUAK EZ DU BEHARREZKOTZAT JOTZEN IKUS-ENTZUNEZKO EUSKAL KONTSEILUA SORTZEKO LEGE-PROPOSAMENA**

- **Eusko Jaurlaritzak uste du dauden organo eta foroek betetzen dituztela EH Bilduk proposatzen duen erakundearen helburuak eta funtzioak**

Eusko Jaurlaritza ez dago ados Ikus-entzunezko Euskal Kontseilua sortzeko EH Bildu legebiltzar taldeak aurkeztutako lege proposamenarekin eta, ondorioz, aintzat hartzearen aurkako irizpidea adierazi du. Jaurlaritzaren irudiko, proposamenean planteatutako gaiak dagoeneko existitzen diren eta behar bezala funtzionatzen duten beste organo eta foro batzuek bideratu eta kudeatzen dituzte. Horregatik baztertu egiten du lege proposamena izapidetzea eta onartzea, egokitasun, efizientzia eta proportzionaltasun irizpideen arabera.

Gaur Gasteizen egindako Gobernu Kontseiluak atzera bota du lege-proposamena, uste baitu indarrean dauden egiturak eta bideak eraginkorrak direla eta ekimenaren helburuak betetzen dituztela. Ildo horretan, honako hauek aipatu ditu: EITB, Gizarte Hedabideen Zerbitzua (Kultura eta Hizkuntza Politika Sailekoa), Begira Batzordea (Emakunde-ri atxikia), Herritar Etorkinen Integrazio eta Partaidetza Sozialerako Foroa eta ZAS sarea.

Euskal Irrati Telebistaren kasuan, hedabide publiko horren jarraipenerako eta kontrolerako hiru foro daudela azpimarratu du Jaurlaritzak: Administrazio Kontseilua, Eusko Legebiltzarako EITBren Kontrol Batzordea eta Programa Kontratuaren Jarraipen Batzordea. Bestalde, Gizarte Hedabideen Zerbitzuak irrati eta telebistako lizentzien izapidetzea eta esleipena, zehapen prozedurak edo ikus-entzunezko komunikazio emaileen erregistroa kudeatzen ditu, besteak beste. Gainera, nabarmendu du Begira Batzordea komunikazio eta publizitate ez-sexistarako aholkularitzaz eta kontrolaz arduratzen dela. Eta, azkenik, Integrazio eta Partaidetza Sozialerako Foroak eta Zurrumurruen Aurkako Sareak (ZAS) komunikabideetan arrazismoa eta xenofobia prebenitzearekin eta desagerraraztearekin zerikusia duen guztian jarduten dutela gogorarazi du.

Gobernu Kontseiluak nabarmendu duenez, Euskal Autonomia Erkidegoak bere araubide juridiko propioa du ikus-entzunezko komunikabideen arloan, honako hauen barruan: Gernikako Estatutuaren 19. Artikulua; EITB sortzeari buruzko maiatzaren 20ko 5/1982 Legea; telebista operadoreek film luzeak eta film labor zinematografikoak eta telebistarako filmak finantzatzeko emisio eta inbertsio betebeharrei buruzko azaroaren 27ko 215/2007 Dekretua; eta Ikus-entzunezko Komunikazioari buruzko azaroaren 8ko 231/2011 Dekretua.

Esparru horretan, Euskadin komunikabide sozialen ekosistema propioa garatu da, publikoak zein pribatuak, irabazi asmorik gabeak, askotarikoa, plurala eta elebiduna, euskal hedabideez eta autonomia erkidego honetan presentzia duten estatu eremuko hedabideez osatua.

## Gobernantza Publiko eta Autogobernua

### **EUSKO JAURLARITZAK BAIMENA EMAN DU IVAPEK OSAKIDETZA, HEZKUNTZA, EHU/UPV ETA ARKAUTEN AKADEMIAKO LANGILE PUBLIKOAK PRESTATZEKO DITUEN HITZARMENAK BERRITZEKO**

- **Hitzarmenek, guztira, milioi bat euro baino gehiago biltzen dituzte prestakuntza plan eta programetarako**

Eusko Jaurlaritzak argi berdea eman dio gaur Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen (IVAP) lau hitzarmen berritzeari, Osakidetzako, Hezkuntza Saileko, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako eta Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU-UPV) langile publikoak prestatzeko. 2020ko eta 2021eko ekitaldietan egindako planen eta programen finantzaketa arautzen dute hitzarmenek, enplegurako prestakuntzaren esparruan. Guztira, milioi batetik gora euro bildu dituzte lau hitzarmenek.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren eta IVAPen arteko hitzarmena sail honek 2020ko ekitaldian bere irakasleentzat egindako plan edo programei buruzkoa da. Zuzkidura 441.957 eurokoa izango da gehienez.

Era berean, EHU/UPVren eta IVAPen arteko hitzarmenak 37.890 euroko gehieneko zenbatekoa izango du, eta 2021eko ekitaldian unibertsitateko administrazio eta zerbitzuetako langileak prestatzeko edo programetara bideratuko dira.

Bestalde, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren eta IVAPen arteko prestakuntza hitzarmena langile sanitarioen eta ez-sanitarioen prestakuntza programetara dago zuzenduta eta 452.061 eurokoa izango da gehienez 2021eko ekitaldian.

Azkenik, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiarekin egindako prestakuntza hitzarmenaren xedea da 2021eko ekitaldian Arkauten egindako enplegu programen finantzaketa arautzea, gehienez ere 193.661 eurokoa.

## Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena

**2021EKO LEHIATU BERRIA PROGRAMAK 17,5 MILIOI EURO INGURUKO LAGUNTZAK AURREIKUSTEN DITU NEKAZARITZAKO PRODUKTUAK, ELIKAGAIK ETA ARRANTZAKO PRODUKTUAK ERALDATU ETA MERKATURATZEKO**

- Programaren azken lau deialdietan 50 milioi euro baino gehiagoren laguntzak eman dira programa honen bidez

Nekazaritzako produktuak, elikagaiak, eta arrantzatik eta akuikulturatik eratorritakoak eraldatzeko eta merkaturatzeko LEHIATU BERRIA programaren bidez 2021ean emango diren laguntzak iragartzeko Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburu Arantxa Tapiak emandako agindua onartu du Eusko Jaurlaritzak.

**2021-2022 ekitaldirako 17.480.000 euro bideratuko dira laguntza horiek finantzatzera.** Azken lau deialdietan **50 milioi euro baino gehiagoren laguntzak eman dira programa honen bidez.** 2020-2021 aldirako 13.255.000 euroko laguntzak ematea aurreikusi zen, baina jasotzen ari ziren eskabide kopuru handia ikusita, exekutibo autonomoak 2.525.000 euro gehiago ematea erabaki zuen. Beraz, azkenean 15.780.000 euroko laguntzak ematea erabaki zen, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura soilik finantzatuta.

### **Inbertsioetarako laguntzak**

Nekazaritzako produktuen, elikagaien eta arrantzatik eta akuikulturatik eratorritako produktuen eraldaketan eta merkaturatzean inbertsioak egiteko laguntzak dira. Zehazki, honetarako dira laguntzak:

- Nekazaritzako produktuen eraldaketan, merkaturatzean edo garapenean inbertsioak egiteko laguntzak, eta basogintzako produktuen eraldaketara eta merkaturatzera bideratutako inbertsioak egiteko laguntzak.
- Arrantzako eta akuikulturako produktuak eraldatzeko eta merkaturatzeko inbertsioak egitea.
- Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritzako eta elikagaien industrietan inbertsioak egitea, aurreko ataletan sartzerik ez badute.

Modalitatearen arabera, pertsona fisikoak edo juridikoak izan daitezke onuradunak: nekazariak edo nekazarien elkarteak, nekazaritza kooperatibak edo nekazaritzako elikagaien enpresak, mikroenpresak, enpresa txikiak eta ertainak. Inola ere ezingo dira onuradun izan Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten erakundeak.

### **Eskaera egiteko epea**

Eskaerak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Eskabideak bide elektronikoaren bidez aurkeztuko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan sartuta, <https://www.euskadi.eus/web/helbidearen/bidez>.

## Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena

### EUSKO JAURLARITZAK 10 MILIOI EUROKO APARTEKO LAGUNTZEN DEIALDIA ONARTU DU EDARIEN SEKTORERAKO

- **Helburua da merkatuko eskaintza orekatzea eta jarduerari eta enpleguei eustea ahalbidetzea**
- **Aurreikuspenen arabera, 400 enpresa inguruk baliatu ahal izango dituzte laguntzak, batez ere ardogintzaren sektoreko enpresek**
- **COVID 19 pandemiaren ondorioak arintzeko ezohiko neurrietako batzuk dira laguntza horiek**

Eusko Jaurlaritzak, Kontseiluaren azken bileran, onartu du **ardoa eta txakolina destilatzeko edo biltegitzeko erretiratzea, sagardo naturala ozpin bihurtzea**, botilatutako ur minerala biltegitratzea eta artisautzako garagardoa egiten duten enpresen kaudimena babestea **errazteko** laguntzak arautzeko Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburu Arantxa Tapiak sinatutako agindua. Funts propioetatik bideratutako 10 milioi euroz zuzkitu dira laguntzak, eta beren helburua da merkatuko eskaintza orekatzea eta jarduerari eta horri lotutako enpleguei eustea.

**Pandemia honen ondorioak arintzeko** eta HORECA sektorearen jarduerak izan duen beherakadak eta edukiera handiko edozein ekitaldi edo ospakizun bertan behera uzteak eragindako kalteei aurre egiteko **Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila abian jartzen ari den ezohiko neurrietako batzuk dira** laguntza horiek.

Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzak, laguntza horiek kudeatzeaz arduratzen denak, egindako aurreikuspenen arabera, 400 enpresa inguruk eta batez ere ardogintzaren sektoreko enpresek jaso ahal izango dituzte laguntzak.

#### Azpisektoreka

**Ardoaren eta txakolinaren kasuan**, Aginduak jasotzen dituen neurriak, batetik, krisi destilaziorako laguntzak abian jartzeari buruzkoak dira, eta, bestetik, ardoa eta txakolina biltegitratzeari buruzkoak. Botilako **ura ekoizten duten enpresek ere** laguntzak jaso ahal izango dituzte soberakinak modu pribatuan biltegitratzeko.

**Biltegitratutako sagardo naturalari** dagokionez, ekoizpenari irteera eman behar zaionez, soberako sagardo naturala ozpin bihurtzeko da proposatzen den laguntzea.

**Artisautzako garagardoak** beste kasuistika bat du, ezin baita gorde edo destilatu. Kasu horretan, enpresa kaudimena babesteko laguntza bat proposatzen da, galera ekonomikoari eta ekoizpen ahalmenari lotuta.

Laguntzaren modalitatea itzuli beharrik gabeko dirulaguntza izango da, kontuan hartzen diren gastuetarako. Onuradun bakoitzeko eskabide bakarra onartuko da, eta ardogintza enpresen kasuan, biltegiatzearen edo destilatzearen artean aukeratu beharko dute. Dirulaguntzak emateko prozedura elkarren segidako konkurrentziakoa da; beraz, modu ordenatuan emango dira, jarduera horietarako aurreikusitako aurrekontu zuzkidura agortu arte.

Enpresa bakoitzeko eskabide bakarra onartuko da, eta agindu honetan zehaztutako laguntza lerroetako bat baino ezin izango da aukeratu. Agindu honetan aurreikusitako laguntzak bateraezinak izango dira COVID-19aren pandemiari erantzuteko enpresa kaudimena babesteko ezohiko neurriei buruzko martxoaren 12ko 5/2021 Errege Lege Dekretuan ezarritakoekin eta Europar Batasunak, Estatuaren Aurrekontu Orokorrek edo gainerako administrazioek helburu eta xede bererako finantzatutako beste edozein laguntzarekin.

### **Eskaera egiteko epea**

Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera aurkeztu ahal izango dira laguntza horien deialdian parte hartzeko eskaerak, funtsak agortu arte. Edonola ere, eskabideak aurkezteko data 2021eko azaroaren 1ean amaituko da.

Eskabideak bide elektronikoaren bidez aurkeztuko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan sartuta, <https://www.euskadi.eus/servicios/1106102> web helbidearen bidez.



## Hezkuntza

### **1,3 MILIOI EURO IKASTETXEKO HIZKUNTZA-PROIEKTUAK GARATZEKO**

Gobernu Kontseiluak Hezkuntza sailburuaren proposamenez gaurko bileran onartu du Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa ematen duten itunpeko ikastetxe pribatuekin harreman estatutarioak edo erregelamenduzkoak dituzten federazio eta elkarteentzako dirulaguntzen deialdia egiten duen Agindu bat, hauek euren hizkuntza-proiektuak gara ditzaten. Deialdi honek 1.332.000 euroko diru kopurua du.

Aipaturiko ikastetxe horiek deialdi honek arautzen dituen dirulaguntzak jaso ahal izango dituzte baldin eta, 2021-2022 ikasturtean ikastetxeko hizkuntza-proiektua garatzeko proiektua aurkezten badute, modalitate hauetakoren batean:

- A Modalidadea: Hizkuntzen tratamendu integral eta integratuan sakonduko duen ikastetxeko hizkuntza-proiektua, bi hizkuntza koofizialak eta atzerriko hizkuntzak kontuan hartuko dituen.
- B Modalidadea: Ikastetxeko hizkuntza-proiektua, atzerriko hizkuntzetako curriculum-arloen irakaskuntzan sakonduko duena.

Deialdi honen bidez diruz lagundu ahal izango dira irakasleen prestakuntza jarduerak, beti ere ikastetxeko hizkuntza-proiektua garatzeko berrikuntza-proiektuei loturikoak. Hala nola:

- Prestakuntza-jarduerak, hizkuntza-proiektuaren diseinuari eta garapenari lotuak.
- Prestakuntza-jarduerak, ikasleen irakurmena garatzen laguntzeko metodologia aktibo eta berritzaileekin zerikusia dutenak (batez ere, euskaraz).
- Prestakuntza-jarduerak, euskararen (eskolatze-hizkuntza) tratamendu didaktiko espezifikoa sendotzekoak, bai eskolatze-aldiko lehen urteetako egokitzapen didaktikoak definitzeko, bai hizkuntzakoak ez diren arloetan hizkuntzen tratamendu integralean sakontzeko.
- Prestakuntza-jarduerak, alor eta gai guztietako irakasleei zuzenduak, ikasleen komunikazio-gaitasunaren garapena hobetu eta hizkuntzen tratamendu integratua eta integralari ekiteko.
- Prestakuntza-jarduerak, hizkuntzen irakaskuntzarekin eta atzerriko hizkuntzan ematen diren gaien irakaskuntzarekin zerikusia dutenak, metodologia aktibo eta berritzaileak garatzeko, hizkuntzen tratamendu integratua eta integrala sustatze aldera.

Deialdi honek 1.332.000 euroko zenbatekoa du orotara. Nortasun juridikoa eta unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzako itunpeko ikastetxe pribatuekin estatutu edo araudi-harremanak dituzten federazio edo elkarteek izango dute dirulaguntza horiek jasotzeko aukera. Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe eta estatu mailako ikastetxeek osatu ahal izango dituzte federazio edo elkarte horiek, baina estatu mailako ikastetxeek osatutakoek Euskal Autonomia Erkidegoan izan beharko dute egoitza, hizkuntza-proiektua Euskadiko ikastetxeetan gauzatu beharko dute, hiru ikastetxe gutxienez EAEn izan beharko dituzte kokatuta eta itundutako 50 gelatik gora izan beharko dituzte.

## Hezkuntza

### **HEZKUNTZA SAILAK 930.000 EURO BIDERATU DITU BIZIALDI OSOKO IKASKUNTZARI LOTUTAKO JARDUERAK BURUTZEKO**

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, bizialdi osoko ikaskuntzari lotutako jarduerak burutzeko dirulaguntzatarako deialdia egiten duen Agindua. Deialdi honek 930.000 euroko diru-kopurua du.

Deialdi honek bizialdi osoko ikaskuntzako hiru jarduera mota laguntzen ditu diruz. Jarduera horiek ezagutzaren edozein arlotakoak izan daitezke, betiere helduen ezagutza, kompetentzia eta gaitasun-maila zabaltzeko eta herritar aktiboak sustatzea helburu hartuta:

- Prestakuntza-jarduera espezifikoak, pertsona talde jakin baten prestakuntza-beharrei erantzuteko diseinatu eta planifikatutakoak (235.000 €).
- Ikaskuntzako bitartekaritza-zerbitzuak (595.000 €).
- Prestakuntzako edo hezkuntzako metodologia berrien esperimentazioari buruzko proiektuak; ezagutzaren belaunaldi arteko transferentziari buruzkoak, prestakuntza hurbiltzeko eta ikastea sustatzeko trabak baztertzeari buruzkoak, edota bizialdi osoko ikaskuntzarekin lotutako beste edozein (100.000 €).

Onartuak gertatzen diren proiektuek, eta ondorioz deialdi honen bidezko finantzazioa eskuratzen dutenek, 2021ean zehar hasi beharko dute, eta datorren urteko uztailaren amaiera bitartean garatu ahal izango dira. Diru-laguntza hauen onuradun izan daitezke: Lanbide Heziketako ikasketak eskaintzen dituzten ikastetxe pribatuak; udalak; tokiko edo eskualdeko garapen agentziak; euren helburu sozialen artean formazioa duten udal-elkargoak; Euskadin egoitza duten unibertsitateak; bizialdi osoko ikaskuntzaren arloan jarduerak burutzen dituzten irabazi asmorik gabeko elkarteak; eta euren helburuen artean formazioa duten merkataritza-elkarteak edo ekonomia sozialeko elkarteak.

Bizialdi osoko ikaskuntzaren esparruko jardueren eskaintza zabal eta eguneratua izateak aukera ematen die herritarrei ezagutzak lantzeko eta zabaltzeko. Baina horrez gain, baita ezagutzak eguneratzeko eta gaitasun profesionalak hobetzeko ere. Era horretan, enplegarritasuna hobetzeko eta ongizate sozial zein ekonomikoan aurrera giteko bideak ere zabaltzen zaizkio gizarteari.

## Hezkuntza

### **EUSKADIKO ZENBAIT UDALERRIREKIN LANKIDETZA-HITZARMENAK, BIGARREN HEZKUNTZAK ERAGINDAKO GASTUAK FINANTZATZEKO**

Gobernu Kontseiluak gaurko bilkuran baimendu du, Hezkuntza sailburuak proposatuta, Hezkuntza Sailaren eta Euskadiko zenbait udalerriren artean lankidetza-hitzarmenak sinatzeko, udal-titulartasuneko ikastetxe publikoetan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza irakasteak eragin diezaieken gastuak finantzatzeko: ikastetxeen kontserbazio, mantentze eta zaintza-gastuak.

Zehazki, honako udal hauekin sinatuko edo berrituko dira hitzarmenak: Oion eta Gasteiz Araban; Abadiño, Basauri, Bilbo, Elorrio, Erandio, Lemoa, Markina-Xemein eta Muskiz Bizkaian; eta Gipuzkoan Alegia, Donostia, Oiartzun, Orio, Pasaia, Villabona eta Zumaia.

#### **Kontserbazioa, mantentzea eta zaintza**

Haur eta lehen hezkuntza bakarrik ematen den ikastetxe publikoetan, kontserbazio, mantentze eta zaintza-gastuak dagokion Udalaren kontura izan ohi dira. Bigarren Hezkuntza soilik ematen den ikastetxeetan, berriz, gastu horiek Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak hartzen ditu bere gain.

Eskola-eraikin berean Haur eta Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikasketak batera ematen badira, lankidetza-hitzarmen bat sinatu behar da, udalari eta Eusko Jaurlaritzari dagozkien kontserbazio, mantentze eta zaintza-gastuak zehazteko. Horixe da, hain zuzen ere, lankidetza-hitzarmen hauen xedea. Hitzarmen hauen indarraldia lau urtekoa izango da, luzatu egin ahal izango da.

Kontserbazioa, mantentzea eta zaintza gastuetarako 2021ean gorago aipaturiko udalerrri horietan kalkulaturako kostua 1.416.000 eurokoa da.

## Osasuna

### OSASUN SAILAK 2,8 MILIOI EURO BAINO GEHIAGO BIDERATUKO DITU 2021EAN ADIKZIOEN INGURUKO ZENBAIT JARDUKETA GARATZEKO LAGUNTZETARA

Gobernu Kontseiluak gaur onetsi duen aginduaren bidez, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak, aurten, **2.854.400 euro** bideratuko ditu Euskadin lan egiten duten toki-erakunde eta irabazi-asmorik gabeko erakundeentzako laguntzetara, prebentzio komunitarioko programak garatzeko, prebentzio-proiektuak egiteko eta **adikzioen arloan** arrisku eta kalteak murrizteko eta jarrera osasungarriak sustatzeko. Era berean, laguntzak toki-erakundeetako adikzioen prebentzio komunitarioko talde teknikoak mantentzera bideratuko dira.

**Toki-eremuan eta osasun-arloaz bestelakoetatik egiten diren jarduketetan osasuna sustatzeko, Osasun Sailak** laguntza horiek deitzen ditu, eta haien helburua da 2017-2021erako Euskadiko Adikzioen VII. Planeko jarduketa-ardatzetan hoberen finkatzen diren programak eta proiektuak mantentzea, behar berriak identifikatzea eta horiei erantzuna emango dieten proiektu berriak bultzatzea, bai eta ekimenak hobetzen laguntzea ere.

Laguntza ekonomiko horiek **ildo nagusietako bat dira Euskadin adikzioen arloan garatzen den lanean**; bertan, erakundeen arteko koordinazioa eta lankidetzeta eta hirugarren sektorearekiko eta kolektiboekiko elkarlana funtsezkoak dira.

Hala, **Eusko Jaurlaritzak eta Osasun Sailak eutsi egiten diote adikzioen fenomenoari heltzeko eta erantzuteko konpromisoari**, eremu komunitariotik, **Euskadiko Adikzioen VII. Planarekin bat etorriz**; plana **Euskadin adikzioen arloan garatzen diren estrategia eta esku-hartze guztien plangintza-, antolamendu- eta koordinazio-tresna** da.

Zehazki, **laguntza ekonomikoa honela banakatzen da dirulaguntzako lau ildotan**:

- Adikzioen prebentzio komunitarioko talde teknikoak sortu eta mantentzea: **1.174.135 euro**
- Toki-planei eta jardun-eremu horretako jokabide osasungarriak sustatzeko planei atxikitako adikzioen prebentzio komunitarioko programak garatzea: **561.765 euro**
- Jarduketa-eremu honetan arriskuak eta kalteak prebenitzeko eta gutxitzeko eta jokaera osasungarriak sustatzeko proiektuak egitea: 1.118.500 euro. Haietatik, **236.000 euroko partida Euskadin jokorako adikzioa eta substantziarik gabeko beste adikzio batzuk prebenitzea eta tratatzea helburu duten proiektuetara bideratuko da.**

## Osasuna

### **OSASUN SAILAK, OSAKIDETZAK ETA ELANKIDETZAK LANKIDETZA- AKORDIOA SINATU DUTE, OSASUN-ARLOAN ELKARLANEAN JARDUTEKO**

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak, Osakidetzak eta eLankidetzak Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agetziak, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren mendekoa denak, osasun-arloan elkarlanean jarduteko protokolo orokorra sinatu dute. Akordioak elkartasun-kanpainetan eta eskolatzemotiboengatik babespean dauden pertsonen aldi baterako babesa emateko zenbait jarduketa-ildo jasotzen ditu, bai eta Euskadiko eta Hegoaldeko herrialdeetako pertsonal sanitarioaren prestakuntza eta Euskadiko pertsonal sanitarioaren parte-hartzea ere lankidetzaproiektuetan edo nazioarteko larrialdi humanitarioetan.

Eusko Jaurlaritzaren iritziz, osasuna nahitaezko baldintza da gainerako giza eskubideez gozatzeko, eta giza garapen jasangarria bermatzeko osasun globala sustatzeak nolako garrantzia duen aitortzen du. Ekarpen hori osasun-arloan elkarlanean jarduteko batera adostutako ildo estrategikoetan islatzen da; horiek, ondoren, Hegoaldeko herrialde txirotuetako biztanleen beharrei erantzungo dieten lankidetzateknikoko ekimenetan ezarriko dira. Gainera, 2030 Agendako Euskadiko lehentasunen programako proiektu enblematikoetako bat da.

Hiru erakundeen arteko lankidetzakakordioa aurretiko esperientzietan oinarritzen da, besteak beste: harrera jaso duten pertsonentzako aldi baterako babesa, pertsonal sanitarioarentzako prestakuntza eta pertsonal sanitarioaren parte-hartzea, bai START ekimenean bai iaz 14 euskal profesionalak Perura eginiko misio sanitarioan. Dokumentuak, aurretik esan den bezala, batera adostutako ildo estrategiko batzuk islatzen ditu; ildo horiek gerora zehaztuko dira lankidetzateknikoko eta prestakuntzako ekimenetan, Hegoaldeko herrialde txirotuetako biztanleen beharrei erantzungo dieten.

## Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak

### **75.000 €-KO LAGUNTZAK ONETSI DIRA, EUSKADIKO MEMORIA DEMOKRATIKOA BERRESKURATZEARI BURUZKO LIBURUAK ARGITARATZEA ETA IKUS-ENTZUNEZKOAK EGITEA SUSTATZEKO**

Eusko Jaurlaritzak, gaur, baimena eman du Euskadiko memoria demokratikoa – Gerra Zibiletik egun artekoa– berreskuratzeari buruzko liburu berriak argitaratzea eta dokumentalak egitea sustatzeko deialdia egiteko. 75.000 € bideratuko dira horretara.

Tematika, bai liburuetarako bai dokumentaletarako, memoria historikoaren eta oraintsuko memoriaren egia berreskuratu eta argitzearekin lotuta egongo da, giza eskubideak defendatzeko eta haien urraketa salatzeko ikuspegitik. Proiektu bakoitzak gehienez 5.000 euroko laguntza jasoko du, liburuen kasuan, eta 10.000 eurokoa, dokumentalenean.

#### **Elkarte eta fundazioentzako dirulaguntzak**

Gaur onetsitako dirulaguntzen lerroaz gainera, 2021eko ekainaren 8an onetsitakoa ere badago; hartara, 112.500,00€ bideratu ziren memoria historikoa eta 1936. eta 1977. urteen arteko aldian Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan demokraziaren eta askatasunaren aldeko borroka berreskuratzera, ikertzera eta zabaltzera bideratutako eta memoria historikoaren inguruko elkarteek eta fundazioek eginiko proiektu bereziak finantzatzera.

Bi laguntza-lerro horietara jotzeko eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, deialdia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita, eta proiektu guztiek egon beharko dute amaituta 2021eko abenduaren 31rako.

EHAAn argitaratzean, euskadi.eus-en egoitza elektronikoan egongo dira eskuragarri eskabideak izapidetzeko zehaztapenak, erantzukizunpeko adierazpenak, justifikazioak eta gainerako ereduak; bertara, Gogoraren web-orritik ere sartu ahalko da.

## Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak

### **250.000 EUROKO DIRULAGUNTZA ZUZENA SALVAMENTO MARÍTIMO HUMANITARIO ELKARTEARI, 'AITA MARI'REN 'MAYDAYTERRANEO' PROIEKTURAKO**

Gobernu Kontseiluak, gaur, Salvamento Marítimo Humanitario elkarteari gehienez 250.000 euroko dirulaguntza zuzena ematea onartu du, *Aita Mari*ren *Maydayterraneo* proiektua garatzeko.

Dirulaguntza horren zenbatekoa honako hauetan laguntzera bideratuko da: Mediterraneoko itsas ibilbideak erabiltzen dituzten migratzaileen ontziei laguntzarako eta sorospenerako larrialdiari erantzuteko ekintzak garatzeko kostuak finantzatzen eta itsasoan giza eskubideen betearazpena monitorizatzen. Eusko Jaurlaritzaren iritziz, interes publikokoa, sozialekoa eta humanitariokoa da ekintza horien garapena; izan ere, bizitzak salbatzen laguntzen dute, eta, gainera, erantzun egokiak antolatzen dira nazioarteko babes-eskatzaileentzat, errefuxiatuek Mediterraneoan jasaten duten krisi humanitarioari gizarte- eta politika-arlotik, erakundeen artean eta sailen artean ematen zaion erantzuna partekatuta orientatzeko esparru-dokumentuan jasotzen den bezala.

Itsas Salbamendu Humanitarioa elkarteak, zeina Aita Marien arduraduna baita eta larrialdietako profesionalek eta boluntario ugari eraten baitute, honako helburu hau du: itsasoan pertsonen bizitza babestea eta giza eskubideak defendatzea, eta, horretarako, Eusko Jaurlaritzaren laguntza du –ez bakarrik ekonomikoa–. Laguntza horrek Eusko Jaurlaritzak une bakoitzean premiazko inplikazio humanitarioa behar duten egoerei arin erantzuteko duen konpromiso proaktiboari erantzuten dio.

Erdialdeko Mediterraneoko –Libia, Tunez, Italia eta Malta artean– biderean bitartez Europara iristea lortzen duen pertsona-kopurua murriztu egin da azken urteotan, baina bide horrek jarraitzen du arriskutsuenetako bat izaten eta hildako eta desagertu gehien dutenetako bat izaten.

2021eko lehen bost hiletan, *Andra Mari* bi misiotan berrehun pertsona baino gehiago erreskatatu ditu: 148 otsailean eta 66 maiatzean. Era berean, pasa den hilean, bosgarren misioan, 95 zeramatzan patera baten bilaketan parte hartu zuen; azkenean, merkantzia-ontzi batek erreskatatu zituen.

## Kultura eta Hizkuntza Politika

### **EUSKO JAURLARITZAK 200.000 EURO BIDERATUKO DITU ITSAS KULTURA-ONDAREAREN BALIOA NABARMENTZEKO DIRU- LAGUNTZETARA**

Gobernu Kontseiluak, gaur, honako diru-laguntza hauek onartu ditu: "Itsas ondarearen esparruan kultura-balioa duten elementuei zuzendutakoak, baldin eta sustapen-, sendotze-, konponketa- eta egokitzapen-jarduerak behar badituzte erabiltzeko, betiere ondasunaren ezaugarrietara egokitzen badira eta esku-hartzearen xede den ondare-balioa nabarmenki gutxiesten ez badute". Helburua zurezko ontzien jabeen mantentze-lanetan laguntzea da, gure portuetako paisaietan jarraitzeko, eta, orokorrean, gure ohiko itsaso-kulturaren alde egiteko.

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak 200.000 euroko partida bideratuko du honako jarduera-ildo hauetan sartzen diren proiektuak finantzatzeko:

- Zurezko ontzietako lanak beti ere beraien musealizatzerako badira (60.000 euro).
- Jendeari zerbitzua emateko egurrezko ontziak armatu eta prest jartzea (60.000 euro).
- Lurrezko instalazioen balioa nabarmentzea: ontziolak, lonjak eta portuko elementuak; eta egitura txikiak, hala nola ontziralekuak (40.000 euro).
- Zurezko ontziak konpontzeko eta egokitzeko gastuak, lizentziak izapidetzeko gastuak, euskal portuetako atrakaleku egonkorren gastuak eta ontziak nabigatzeko dituen baimenak barne (20.000 euro).
- Elkarte edo erakunde publiko edo pribatuek zurezko itsas kultura-ondarearen balioa nabarmentzeko egindako ekitaldiak (20.000 euro). Aurten, bosgarren jarduera-ildo hau errekuperatu da, iaz COVID-ak eragindako egoeraren ondorioz baztertu ondoren.

Diruz lagun daitezkeen proiektuek hasita egon beharko dute edo 2021eko ekitaldian hasi beharko dute, eta, gehienez ere, 2021eko abenduaren 31ra arte gauzatu beharko dira.

2021eko deialdian, itsas kultura-ondarearen balioa nabarmentzeko 13 proiektu diruz lagundu ziren.



## Kultura eta Hizkuntza Politika

### EUSKO JAURLARITZAK HAINBAT BERRIKUNTZA DAKARREN 1,3 MILIOI EUROKO EUSKALGINTZA DEIALDIA ONARTU DU EUSKARA SUSTATZEKO PROIEKTUAK LAGUNTZEKO

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du Euskalgintza deituriko 2021eko deialdia. Gizarte-bizitzan euskara sustatzeko, garatzeko edota normalizatzeko laguntza hauetara 1,3 milioi euro bideratuko dira eta 2021ean burutuko diren egitasmoak izango ditu kontutan.

Honako hauek dira diruz lagundu daitezkeen egitasmoak:

- **A multzoa:** 750.000 euro erabiliko dira lau motatako proiektuak laguntzeko. Orain arte bezala, euskararen erabilera areagotu eta sendotzeko egitasmoak, batez ere gazteei zuzendutako aisialdiko eremuetan eta bestetik, aisialdiko hezitzaile, dinamizatzaile edota begiraleei begira, euskarazko eta euskarari buruzko prestakuntza eta material-sorkuntza lagunduko da. Aurtengo berrikuntza bezala, euskararen erabilera soziala sustatzearekin eta euskarazko ahozko komunikazioa hobetzearekin zuzeneko lotura duten jarduerak, lagunduko dira. Hemen lehenetsiko dira mintzapraktika lantzeko egitasmoak eskola eremuan, beti ere, curriculum esparrutik eta gelatik kanpo. COVID-19ak eragindako itxialdi luzearen ondorioz haur eta gazte askok euskara erabiltzeko dituzten eremuak murriztu dira eta ondorioz hiztun berri eta gazteei esparru ez formalean ahozkotasuna lantzeko guneak sortzen laguntzea da lerro berri honen helburua. Eta azkenik, aurtun lehengo, kirolletako begirale edota entrenatzaileentzako euskarazko eta euskarari buruzko prestakuntza eta material-sorkuntza lagunduko da. Izan ere, gazteentzako kirol entrenatzailea erreferente garrantzitsua dela jakinda, entrenatzaileak gazteen hizkuntza ohituretan eragiteko gaitasuna izan dezake. Gaitasun hori indartze aldera euskarazko prestakuntza eskaintzea eta hizkuntza estrategia batzuk garatzea tresna indartsuak izan daitezke.
- **B multzoa:** Euskaldunen artean euskararen erabilera areagotu eta sendotzeko asmoz, gizarte aktibazioaren bidez, hizkuntza-ohiturak aldatu eta hiztunak aktibatzen bideratutako programak ekintzak eta jarduerak. 125.000 euro erabiliko dira proiektu hauek laguntzeko.
- **C multzoa:** Euskaraz ez dakiten euskal herritarrak eta etorkinak euskarara hurbiltzeko helburua duten jarduera eta egitasmoetara 50.000 euro bideratuko dira.
- **D multzoa:** deialdiko berrikuntzetako bat da multzo hau. Ingurune Digitalean euskara sustatzeko deialdia Euskalgintzakoan txertatu delako. 300.000 euroekin batetik, teknologia berrietan oinarrituta, nerabe eta gazteen aisialdirako euskarazko edukiak sortu eta hedatzea helburu duten egitasmoak lagunduko dira eta bestetik Interneten edukiak euskaraz soilik hedatuko dituzten web gune tematiko ez komertzialak.

- **E multzoa:** Euskararen familia bidezko transmisioa sendotzea helburu duten egitasmoak laguntzeko 35.000 euro erabiliko dira.
- **F multzoa:** 40.000 euro bideratuko dira euskarari zuzenean lotutako alderdiak aztertzea helburu duten jardunaldiak laguntzeko.
- **G multzoa:** Euskaraz irakurtzeko zaletasuna sustatzea helburu duten egitasmoak laguntzeko 50.000 euro erabiliko dira.

2020ko deialdian guztira 107 egitasmo lagundu ziren diruz, besteak beste, Arabagara Euskaldunon Elkargunearen “Kuadrillan mintza”, Ttakun Kultur Elkartearen “Gaztekluba eta kuadrilategi”, EDE Fundazioaren “Asteburuetan jolas, txango eta solas” edo Bizkaiko Urtxintxa Astialdi Eskolaren “Familian euskaraz jolasean”.

## Kultura eta Hizkuntza Politika

### **EUSKO JAURLARITZAK 100.000 EUROREKIN LAGUNDUKO DU GOI-MAILAKO KIROL-LEHIAKETAK ANTOLATZEA**

Kultura eta Hizkuntza Politika sailaren proposamenez gaurko Gobernu Kontseiluak 2021. Urtean goi-mailako kirol-lehiaketak antolatzeko dirulaguntzak onartu ditu gaur. Eusko Jaurlaritzak urtero egiten du deialdi hau lehiaketa hauek kirola bultzatzeko pizgarri izateko asmoz. Izan ere hitzordu hauek lehiarako marko bat eskaintzen die goi-mailako euskal kirolariei eta jarduera ekonomikoa ere sortzen dute.

Guztira 100.000 euroko diru partida bideratuko da dirulaguntza hauetara. Goi mailako kirolatza hartzeko nazioarteko eremu eta izaerako lehiaketak izan beharko dira eta honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Nazioarteko federazio baten, europar federazio baten edo nazioarte-mailako liga profesional baten egutegi ofizialaren barruan egotea.
- Mundu-mailako lehiaketetan, kontinente biko edo gehiagoko kirolariek parte hartzea.
- Lehiaketa guztietan, herrialde biko eta gehiagoko kirolariek parte hartzea.
- Zirkuitu edo ligaren formatuko lehiaketak, herrialde bitan edo gehiagotan antolatzea.

Tenisaren kasuan probak Europar Federazioaren, Tennis Profesionalaren Elkartearen eta Kirol Egokituaren Nazioarteko Federazioaren egutegi ofizialean sartuta egon beharko dira. Sufaren kirol-modalitatean berriz Nazioarteko Elkartearen, Europar Federazioaren eta Surfari Profesionalen Elkartearen egutegi ofizialean eta boxeoen kasuan nazioarteko titulu-ofizial bat lortu daiteken goi-mailako kirol lehiaketen antolaketa izan beharko da.

Dirulaguntzak kirol federazioek, kirol-klubek, kirol elkarteek eta kirola helburu duten merkataritza-sozietateek jaso ahal izango dituzte baldin eta legez eratuak izanik erregistro egokian inskribatuta badaude. Kirol-modalitateen inguruko jarduerak noizean behin antolatzen dituztenek ere jaso ahal izango dute laguntza beti ere legez eratuak badaude eta erregistro egokian inskribatuta badaude.

Interesa dutenek hilabeteko epea izango dute laguntzak eskatzeko deialdia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. 2020ko deialdian, 7 klub edo elkarteek jaso zituzten goi-mailako kirol-lehiaketak antolatzeko laguntzak. Besteak beste 66. Nazioarteko Zornotzako Krossa, Nazioarteko Juan Muguerza Krossa, txirrindularitzako XIX. Durango Durango emakumeen saria edo gurpildun saskibaloian Bilbao Champions League lehiaketako antolatzaileek jaso zuten iaz dirulaguntza hau.

## Presidencia

### CONFERENCIA SOBRE EL FUTURO DE EUROPA 2021-2022

#### CINCO RETOS: UNA EUROPA

- **El Gobierno Vasco y el Movimiento Europeo EuroBasque ponen en marcha un proceso de reflexión abierto a la ciudadanía y a la sociedad civil vasca, cuyo resultado será la base de la aportación a la Conferencia sobre el Futuro de Europa**

El Gobierno Vasco será de nuevo un agente activo en el proceso de integración europeo, durante los doce meses que va a durar la *Conferencia sobre el Futuro de Europa*, inaugurada el pasado 9 de mayo en Estrasburgo. La Conferencia pretende convocar, por primera vez, a la ciudadanía y a la sociedad civil europea para que participe en los debates y exprese sus opiniones, a fin de definir el futuro de Europa.

En esta nueva etapa, el Lehendakari y los presidentes de 14 regiones europeas con poderes legislativos, reunidos en la iniciativa RLEG, enviaron un escrito el pasado 3 de mayo a las máximas autoridades, con ocasión de la celebración de esta Conferencia, en el que reclaman un mayor protagonismo y la participación directa de las regiones con poderes legislativos en el proceso de elaboración y aplicación de políticas en la UE.

#### **EuroBasque**

Además y ante este nuevo proceso de reforma de la UE, el Gobierno Vasco junto con el Consejo Vasco del Movimiento Europeo, EuroBasque, han puesto en marcha un proceso de reflexión abierto a la ciudadanía y a la sociedad civil vasca, organizado en cuatro seminarios.

Bajo el lema *Cinco retos: una Europa*, los seminarios abordarán cinco retos claves para el futuro de la Unión Europea: el Plan de Recuperación para Europa; Europa y la geopolítica mundial; la gobernanza europea; la Europa socia; y la diversidad cultural y lingüística.

El resultado de este proceso de reflexión de la sociedad vasca constituirá la base de la aportación a la Conferencia sobre el Futuro de Europa, a través de la plataforma digital creada con tal fin por las instituciones europeas.

La primera jornada se celebrará el 22 de junio en el Palacio Euskalduna, en Bilbao, y su tema de discusión será “El Plan de Recuperación Europeo: una respuesta federal a la crisis”. En el mismo, se abordarán los detalles del Plan de Recuperación impulsado por la Unión Europea, dotado con más de 800.000 millones de euros, así como sus principales líneas maestras de financiación y la oportunidad que supone para Euskadi. La jornada contará con expertos de

primer nivel sobre economía, transición verde y transformación digital, con representantes institucionales, académicos y diversas organizaciones de la sociedad civil, así como con la ciudadanía interesada en participar.

En los siguientes meses – y hasta la primavera de 2022- se celebrarán tres jornadas más que tratarán sobre los siguientes asuntos:

- Una Europa geopolítica y el papel de la UE en el mundo,
- La gobernanza europea y el papel de Euskadi en la UE,
- Una Europa diversa y solidaria.

Las jornadas se celebrarán en los tres Territorios Históricos y ofrecerán la posibilidad de participar de forma presencial y también de forma telemática y a través de las redes sociales.

